

Eroski eta Fagor finantza ekarpenak

Kooperatiben eta bankuen arteko linboan harrapatuta

Ez dira aurrezki kutxetako “lehenetasunezko partaidetzak”, bezeroek bazuten arriskuaren berri, eta interesak kobratzen segitzen dute gainera. Baina badute txanponaren beste aldea: Eroskiko eta Fagorreko finantza ekarpenak erosi zituztenek ezin dute euren dirua nolnahi berreskuratu.

DANIEL UDALAITZ

CORRALITO moduko batean milaka aurreztaileren sosak harrapatuta dituzten “lehenetasunezko partaidetzak” arazo larria sortu dute herri-ugarirengan. Interes eta arrisku handiko produktu finantzarioa erosi zuten euren dirua seguru zegoela pentsatuz, baina krisia etorri denean, aurrezkiak ezin dituztela atera esan diete leihatilan, begiratzeko kontratuaren letra txikia. Kutxen, Bankuen eta Aseguruen Erabiltzaileen Elkarteak (ADICAE) jakinarazi duenez Hego Euskal Herrian 17.000 lagun daude egoera horretan, batz bestea 30.000 euro “bahituta” dituztela.

Fagor eta Eroskiren finantza ekarpenak oso tankerakoak dira. Hauek ere ezin dira nolnahi berreskuratu. Baina badaude diferentzia batzuk.

Inbertsioa finantzatzeko: Eroski eta Fagor ekarpenak

MCCko bi enpresa garrantzitsuek euren inbertsio ugariak finantzatzeko eskaini zituzten produktu horiek 2000ko hamarkadan. Eroski izan zen lehena, 2002an, eta Fagorreko segitu zion ondoren, 2004an. Urte horietan Eroskik Caprabo erosi zuen eta horretarako oso beharrezkoak zituen milaka milioi euro lortu zituen aurreztaileren bidez.



Eroskiren eta Fagorreko finantza produktueta inbertitu zuten herritarrak euren dirua berreskuratu ezinik dabilta.

Ekarpenak aktibo finantzarioen bitartekariaren elkartean (AFBE) daude jaulkita; oraindik ere aktibo daude eta interes gozoak sortzen dizkiete bezeroei, %5 ingurukoak. Urtarrilean Eroskiko ekarpenen jabeek 29 milioi euro jaso zituzten, eta azken bost urteetan 173 milioi euro. Interes hauek bermaturik dituzte, ez daude irabazi edo galeren baitan; hori da lehenetasunezko partaidetzekin duten diferentzietako bat.

Beste diferentzia nabarmen bat da eramandako informazio politika. Lehenetasunezko partaidetzen erosleek behin baino gehiagotan salatu dute engainatuak izan direla. Aurrezki kutxetan, kasu askotan, ez zuten bezeroa produktuaren arriskuez ohartarazten. “Iruzurra” hitza lau haizetara zabaldu da eta salaketa kolektiboak auzitegietan dira dago-

eneko. Eroski eta Fagorren kasuan, aldiz, informazio liburuxkak egin zituzten arriskuaren berri izateko. Haietan garbi adierazten da produktu subordinatuak direla, eta beraz, hartzekodunen artean azkenak izango direla. Era berean, bezeroak jakitun ziren ekarpenak betirako direla, ez direla itzuliko kooperatibak likidatu ezean.

Likidezia falta

Dirua berreskuratzeko modu bakarra AFBEko merkatuan salmentan jartzea

da, baina operazioan diruaren zati handi bat gal liteke, eta erosleak aurkitzea oso zail da gainera. Nola-bait esatearren, kooperatibaren eta bankuaren arteko linbo batean geratu da bezeroa.

Eroskik ez dauka asmorik egun 600 milioi euroko balioa duten ekarpen horiek erosi eta bere egiteko. Agustín Markaide kooperatibako presidentek *Deia* egunkariari egindako adierazpenetan hala baieztatu du behintzat: “Ez. Finantza entitate hartzekodunek ez ligukete utziko murrizten gure kapitalaren eta errekurtsuen parte balira bezala jaulki zena, ez behintzat haiekin dugun zorra kobratzen duten arte. Jakina, ulertzen dugu egoera zaila dela, oraintxe merkatuetan likidezia falta baitago”. ■

